

Kristauek konpromisoa hartzen dute munduarekin

Igaro dira 2.000 urte lehen kristau-elkarteak sortu zirenetik. Gaurko kristauek, orduko haiek bezala, konpromisoa hartzen dute **fedea ospatzeko, iragartzeko** eta Jainkoaren maitasunaren arabera **jarduteko**.

Lotu gezien bidez:



Jesusen mezua **iragartzen** diete Jesus ezagutzen ez dutenei edo hobeto ezagutu nahi dutenei.

Horregatik egiten dituzte **katekesia** eta prestakuntza-ikastaroak.



Kristauek Eukaristian eta beste **sakramentuetan ospatzen** dute fedea, eta elizan biltzen dira otoitz egiteko.

Urtean zehar, Jesusen amaren, Mariaren, eta santu-santen bizitzetako uneak gogoratzen dituzte.



Jainkoaren maitasuna pertsona guztiei banatuz **jarduten** dute, batik bat behartsuenei, pobreei, bakarrik bizi diren zaharrei, gaixoei...

Horretarako, dirua edo elikagaiak ematen dituzte eta beren denbora eskaintzen dute haiei lagun egiteko eta artatzeko.

Kristauek mundua bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin laguntzen dute beren ekintzen eta lekukotasunaren bidez.